

arioak

Gonzalez eta



Maria Lili

Iako kide eta NUPEk auzipetutako ikaslea

«Euskal Herrian ez dago lekurik euskaldunen aurkako erasoak argiago antzeman daitezkeenik»

«Euskal Herriko salbuespen egoera argi asko antzeman daiteke gurean», esan du Ikasle Abertzaleetako kide eta NUPEko ikasle Maria Lili. Bera eta eskolako beste 28 kide auzipetu ditu NUPEk. Epaiketa joan den ostegunean egin zuten. Azkenik, jarritako salaketak kendu zituen NUPEk. Poliziak salatuta soilik epaitu zituzten. Epaitegitik pasatu ostean ere, Lili ozen mintzatu da: «Epaiketaren harira, ikasle mugimendua berpizten ari da».

■ Auzipetuta, zergatik?

LOU ezartzera zihoazela, *Lege Arro-tzei Intsumisia*o dinamika abiatu zuen IAK. NUPen, Euskararen Legea erantsi genion protestaldiari. Arrosadiako campusean itxialdia egin, eta Polizia bertaratu zen. Polizia etxean eman genuen gaua. Biharamunean ohartu ginen NUPEk ikasleen aurkako salaketa jarria zuela epaitegietan. Desobedientzia egitea, lokal publikoak okupatzea, eta Poliziari gogor oldartzea leporatu ziguten. Epaiketa asteon gertatu da. Sekulako epaiketa: 30 abokatu, 29 akusatu...

■ NUPEk behin baino gehiagotan salatu ditu ikasleak.

Bai. Ia beti, ordea, edo salaketa kendu, edo epaiketara ez dira azaldu. Auskalo zergatik.

■ Epaitegietako aferez gain, zein da NUPEko unibertsitario euskaldunen egoera?

Euskal Herriko salbuespen egoera latzaren ispilu da NUP. Ziur asko, Euskal Herrian ez dago lekurik, euskaldunen aurkako erasoak argiago antzeman daitezkeenik. Salbuespen egoerak hamaika aurpegi ditu: campusa kalez jantzitako poliziez mukur dago egunero; adierazpen askatasuna mugatzen dute; kartelik eta pankartarik ezin dugu ipini; ikasle presoen jarduna oztopatzen dute; eta, okerrera, euskara ondoezik bizi da NUPen. Bestalde, Perez Prados izan da LOUren alde azaldu den errektore bakanetarikoa; eta ikasteko ordaindu beharreko tasak beste eskoletan baino handiagoak dira. Egin kontu!

■ Egoera aldarazteko, zertan ari zarete ikasle euskaldunak?



LANDER FERNANDEZ ARROIA/ ARGAZKI PRESS

Epaiketaren harira, ikasle mugimendua berpizten ari da. Gainera, Euskararen Legea aurki onartuko dutela eta, mobilizazioak areagotuko ditugu. Nola edo hala, Euskararen Legea baldintzatu nahi dugu.

■ Zergatik dute NUPEko agintariak euskaldunekin hain jarrera hertsia?

Errektoretza taldeak unibertsitatean eta UPNk nafar gizartean jarrera

bera agertu dute: euskara amaitzea dute xede, eta NUPen, bederen, Euskararen Lege murriztailea onartuz gero, lortuko dute.

■ NUPen, ikasleak zarete euskararen aldeko borrokaren sustatzaile.

Uneoro, guk jardun behar dugu aitazindari, baina irakasleen eta AZPeta-ko beharginen multzo majo batek ere bere egin du borroka.

er San Miguel

de eta Mondragon Unibertsitateko ikaslea

«Ikasle otzanak hezi gura dituzte: ezer gertatuta ere, bazterrik harrotuko ez duten ikasleak»

or ez dute zigortu edo auzipetu. Nolanahi ere, MUko Ikasle Abertzaleetako kide Iker San Miguel, bertoko unibertsitateetako ikasle, auzipetatu zuten aurkako erasotzat. HUPen eta NUPen ekinbidemikoa eta judizialak: auzipetatu zituzten agintariak, han eta jarrera sano frankista eratu zuten.

■ Trakariok arbuizatzeko zein eraso egin duzue eskolan?

Ikasle jarri, burrunban jardun, erasoak campusetan bezalako manifestazioa egin genuen eta astean.

■ Era begirako ekintzarik egin duzue?

Ekintzak ez. Dena den, erasoak eskubideen aldeko aldean hastapenak dira haue-

■ Kutsu berezia aitortu die- te estaldiei.

Ikasleak eskubideak erabiltzen dituela salatu gura dute. Besteak beste, grebarako erasoak ez daukagu. Bertako

agintarien eskutan dago greba noiz egin erabakitzea. Areago oraindik, grebarako deia eginez gero, mehatxatu egiten gaituzte. Iaz, adibidez, lan-uztea antolatu genuen. Segituan ailegatu zitzaigun errektoretza taldearen e-maila. Kalte ekonomiko eta akademikoak pairatuko genituela adierazi ziguten. Azkenean, lan-uztea egin egin genuen. Eta mehatxua ez zuten bete.

■ Zein beste eskubide ukatu dizue- te?

MUn, ikasleon hitza hutsaren hurrengoa da. Gobernu organoetan parte-hartzerik ez daukagu. Egin beharreko aldaketak euren artean hitzartzen dituzte, Mende-berri proiektua kasu. Irakaskuntza egitasmoa ezarri egin dute, eta ondorengo hitzartu zitzaizkigu Mendeberriren nondik norakoak azaltzen. Bestalde, adierazpen askatasuna zapuztu dute: eskolan kartelak ezin ipin ditzakegu. Kartelak itsatsi eta itsumustuan kentzen dituzte.

■ Trakak traba, ikasle mugimenduanola dago MUn?

Kostata mugitzen dira ikasleak, bultzada handia behar dute. Nolanahi ere, egoerarik zailenetan beti erantzuten dute.

■ Unibertsitate pribatu batean, gaitzagoa da ikasle mugimendua piztea?

Bai, ezbairik gabe. Gurean, bederen, ikasle otzanak hezi gura dituzte: ezer gertatuta ere, bazterrik harrotuko ez duten ikasleak. Hargatik, MUn askoz ere zailagoa da ikasleak mugiaraztea.

■ Zein dituzue ikasle borrokarako tresnak?

Salaketa ekintzak, batik bat. Elkarretaratzeak, manifestazioak, enkarteladak...

■ Irakasleen laguntzarik izan du- zue?

Ez, oso gutxi parte hartzen dute. Badago pare bat irakasle baba eskaintzen diguna, baina tira... Litekeena da irakasleak eskolak har ditzakeen neurrien beldur izatea.



JON URBE / ARGAZKI PRESS